

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Euskararen Mediatekak funtsak osatu ditu Xaloa kultur-elkartearen ikus-entzunezko grabazioen bidez

Nafarroako Gobernuak 8.000 euroren truke erosi du 80 orduko materiala euskaraz, gehienbat Baztango dialektoan

Martes, 15 de mayo de 2012

Nafarroako Euskararen Mediatekaren funtsa Xaloa kultur-elkartearen artxiboko 80 orduko ikus-entzunezko grabazioen bidez osatu dute. Materiala euskaraz da, Baztango dialektoan.

Horretarako, Maximino Gómez Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak Ioseba Igarabide erakunde ordezkararekin lankidetzahitzarmena sinatu du.



Igarabide, ezkerrean, eta Gómez, eskuinean, hitzarmena sinatzen.

Hitzarmenaren arabera, Nafarroako Gobernuak 8.000 euro emango ditu materiala erosteko. Materialak funtsean jasota dauden herri guztietako grabazioak barne hartuko ditu, dialektoen aniztasuna aberasteko eta eduki etnografikoagatik interesgarriak direnak.

Ikus-entzunezko funtsak ikerketak, azterketak, sustapena eta hedapena burutzeko erabiliko dira, euskara eta bere dialektoak babestu, berreskuratu eta garatzeko helburuak betetze aldera.

Hitzarmena Nafarroan euskara berreskuratu eta garatzeko Euskararen Foru Legearen helburu nagusia betetzeko egin da. Legeak ezartzen duenez, Foru Komunitateko euskararen dialektoek errespetu eta babes berezia jasoko dute.

Bestalde, hitzarmenaren arabera, Xaloa Kultur-elkartek "balio handiko ikus-entzunezko artxibo garrantzitsua" dauka Baztanen erabiltzen den euskararen aldaerak, baztanera batik bat, babesteko.

Gogoratu beharra dago 2010ean [bi erakundeek beste lankidetzahitzarmen bat adostu zutela](#) Euskararen Mediatekaren funtsak hobetzeko. Orduan, 10.000 euro eman ziren 100 orduko ikus-entzunezko materiala erosteko.